

LIBURUTEGI NAGUSIA
BIBLIOTECA GENERAL

LIBURUTEGI NAGUSIA
MEMORIA

2024

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO

01/ Giza baliabideak

Zerbitzuko arduraduna: 1
Arloko arduraduna: 1
Liburutegiko Goi-mailako teknikariak: 6
Liburutegiko Erdi-mailako teknikariak: 2
Liburutegiko administrariak: 3
Mandatari mendekoa: 1

Laguntza tekniko baten laguntza izan dugu:

- Teknei enpresak Hezkuntza Liburutegiko funtsen tratamendu bibliografikoa egin du. Prozesu hori abenduan amaitu zen.

02/ Lokala, instalazioak eta ekipamendua

- 225 m^2-ko irakurketa-gela, 12 irakurketa-postu, Interneterako sarbidea duten 2 ordenagailu, inprimagailu 1, fotokopiagailu-digitalizatzaile 1, mikroformen irakurgailu 1 (papera eta digitala).
- Lantokia: 144 m^2.
- Lau depositu Lakua IIko 2. sotoan, armairu trinkoekin: 761m^2, 6.880 metro linealeko apalategiarekin.
- 25 m^2-ko gela bat Lakua IIko 1. sotoan, telebista-monitore eta bideo erreproduzigailuarekin.

Liburutegien kudeaketa **AbsysNet** programaren 2.2 bertsioarekin egiten da. Programa hori Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegi guztiek erabiltzen dute, eta sare horretan dago Liburutegi Nagusia.

03/ Zerbitzuak eta jarduerak

EUSKO JAURLARITZAKO LIBURUTEGIAK HOBETZEKO PROIEKTUA

Eusko Jaurlaritzako liburutegiak hobetzeko prozesuarekin jarraituz (2021ean onartu eta hasi zen), honako jarduera hauek egin dira:

- Urritik abendura bitartean, Teknei enpresak Liburutegi Nagusiko bilduman sartzeke zeuden azken 1181 monografiak birkatalogatu zituen.
- Azaroan, gure saileko Baliabide Orokorren Zuzendaritzak eta, alde batetik, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailek eta, bestetik, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak erabaki zuten Industriako eta Nekazaritzako Liburutegietako inprimatutako bildumak (monografiak eta argitalpen seriatuak) bertatik Liburutegi Nagusira eramatea. Lekualdaketa abenduaren 16tik 23ra egin zen.

03.1. ESKURATZEAK

Liburutegiaren eginkizun nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileen informazio- eta dokumentazio-beharrak asetzea da. Horretarako, **126.902** monografia eta erreferentziazko lan ditu, **4.079** argitalpen seriatu, **40** datu-baseren harpidetza eta **151** aldizkari elektroniko.

Monografiak: Aurrekontu-partida propioarekin eskuratutako funtsez gain, katalogoko tituluak gehitu dira, bai trukearen bidez, edo baita beste erakunde batzuen eta partikularren dohaintzen bidez ere.

Sartutako monografiak guztira: **1.284**

- Eskuratzetik datozenak: **595**
- Kosturik gabe (truke edo dohaintza bidez): **689**

Hemeroteka: 19 harpidetza berri gehitu dira aldizkari elektronikoetan.

Prentsa Digitala: Irakurketa-gelan, eguneroko **10** prentsa-bururen lineako sarbidea.

03.2. KATALOGAZIOA ETA PROZESU TEKNIKOA

4.162 monografia titulu prozesatu dira.

Monografien **2.347** laburpen digitalizatu dira.

Katalogazioaren arloan, azpimarratu behar da Liburutegi Nagusia hasi dela migrazio-prozesutik EIPSra datozen autoritateak eguneratzen. Guztira **7.286** T100 autoritate osatu dira.

03.3. AZALEZTAPENA

2024an **1.408,44** euroko aurrekontua onartu zen Diario de Noticias de Navarra egunkaria azaleztatzeko (gure liburutegiari dagokio hori gordetzea, Euskal Prentsa Digitalizatzeko Partzuergoaren erabakiz).

03.4. BIKOIZTUEN ESKAINTZAK

Liburutegiak duplikatuen 3 eskeintza egin ditu, 2 monografiena eta 1 aldizkako argitalpenena.

03.5. MAILEGUA

EAEko Administrazio Orokorreko langileentzako maileguak irakurketa-gelan: Liburutegi Nagusiko funtsetik 1.117 mailegu egin dira.

Maileguak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen bidez: EIPSren katalogoarekin bat egin ondoren, liburutegien arteko **295** mailegu kudeatu dira.

03.6. IRAKURKETA-GELAKO ERREPROGRAFIA-ZERBITZUA

34.359 erreprodukzio egin dira guztira, paperean zein digitalean.

03.7. DOKUMENTAZIO-ZERBITZUA

DialnetPlus Zerbitzuak. 2.514 eskaera jaso ditu 2024an, aldizkari-artikuluen eta monografia-kapituluen aldetik. Erantzuteko batez besteko denbora 1,72 egunekoa da.

280 eskatzaile izan dira, horietatik **152** emakumeak (% 54) eta **128** gizonak (% 46).

Dokumentuak aurkitzeko, Jaurlaritzatik kanpoko liburutegietara jo behar izan da, batez ere unibertsitateetako liburutegietara, kasuen % 11,85ean (298 eskaera). Internetez % 4,41 eskaera egin dira (111 eskaera). Gainerako eskaerak, %83,73 (2.105), Eusko Jaurlaritzaren liburutegietan ebatzi dira.

Dokumentazio-eskaerak.

2024. urtean zehar 106 informazio- eta/edo dokumentazio-eskaera ebatzi dira.

03.8. SARE SOZIALETAN PARTE HARTZEA: X

Liburutegi Nagusiak **1.100** post argitaratu ditu urtean zehar eta 1.007 jarraitzaile ditu.

03.9. NOBEDADEAK

Hilabete hasiera bakoitzean, Irakurketa Gelako nobedadeen erakustokia eguneratzen da. Bertan, erositako azken lanak kontsulta daitezke, uneko urtean eta aurrekoan argitaratutakoak.

03.10. BULETIN BIBLIOGRAFIKOAK ETA ISDak

Hilero, azken hilabetean Liburutegi Nagusiko katalogoan sartutako monografia guztiak biltzen dituen bibliografia argitaratzen da Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko OPACean.

12 nobedade-buletin eta 11 hezkuntza-buletin egin dira. Hilero banatzen dira eta Liburutegi Nagusiko webgunean argitaratzen dira.

Nobedadeen buletina harpidedun zerrenda bateri banatzen zaio, eta, urtean bitan, Administrazio Orokorreko langile guztiei bidaltzen zaie.

Hezkuntza Buletina 629 ikastetxe publikoetako idazkaritzei eta Berritzeguneko langileei (335 pertsona) banatzen zaie.

03.11. BESTE JARDUERA ETA PROIEKTU BATZUK

Liburutegi Nagusiak ongietorri-liburuxka bat prestatu du, eta birritan banatu zaie Eusko Jaurlaritzako sailetako zerbitzu-zuzendaritzei, sartu berri diren langileei ematen zaien dokumentazio-karpetan sar dadin.

Apirilean 8 prestakuntza-tailer antolatu dira euskaraz eta gaztelaniaz. Lau, OPACi eta web-orriari buruzkoak, eta beste 4, Dialnet Plusari buruzkoak.

Liburutegiak lan hauek egiten ditu Argitalpen Zerbitzu Nagusiarekin batera: aholkularitza bibliotekekonomikoa, CIP fitxa, argitalpenen katalogazioa eta Dialneten egindako argitalpenen aukeraketa bat.

2018an, Eusko Jaurlaritzaren Dialnet Pluseko orri instituzionala aktibatu zen, eta Eusko Jaurlaritzarekin eta haren erakunde autonomoekin elkartutako egileekin lan egiten hasi zen. 2024an, Dialneteko egileen profilak eguneratzen jarraitu da, Eusko Jaurlaritzako Administrazio Orokorreko langileak diren edo izan diren aldetik. 93 egile identifikatu dira, 630 guztira.

Gainera, Dialnet-eko Argitalpen Zerbitzu Nagusiak argitaratutako 68 monografia indexatu dira.

Urrian (liburutegien egunean) eta abenduan bi liburu-azoka antolatu dira irakurgelako sarreran.

03.12. PRESTAKUNTZA-JARDUERAK

Erabiltzaileen prestakuntza modu ez-presentzialean egiten jarraitzen da, telefonoz eta posta elektronikoz.

03.13. LANGILEEN PRESTAKUNTZA-JARDUERAK

Liburutegiko bi lagun Dialnet Fundazioak antolatutako “Dialnet Global” biltzarrean izan ziren (Logroño, maiatzak 30 eta 31).

03.14. ERAKUSKETAK

Martxoan erakusketa bibliografiko bat inauguratu zen **Eduardo Chillidaren jaiotzaren mendeurrena** zela eta.



Apirilean, Liburuaren Eguna ospatzeko, Liburutegi Nagusiak **Bookcrossing 2024** proiektuan parte hartu zuen bideo batekin eta liburuak askatuz Jaurlaritzak Lakuan duen eraikinean.

Ekainean erakusketa bibliografiko bat inauguratu zen **Nestor Basterretxearen jaiotzaren mendeurrena** zela eta.


Azaroan, **Euskadi Literatura Sariak 2024** erakusketa inauguratu zen, saritutako lanekin eta saritutako pertsonen bildumako lan guztiekin.

04/ **Barne-lankidetzak**

Legesareako lantaldea Liburutegi Nagusiak eta IVAPeko Liburutegiak (Bilbo) osatzen dute. Horrela, Liburutegi Nagusian 171 buletin juridiko egin eta bidali dira egunero, guztira 228.

Liburutegi Nagusia Zerga Administrazioko Zuzendaritzarekin elkarlanean aritzen da Zerga Informazioari buruzko bere hileko Buletineko artikuluak hornitzeko.

Liburutegi Nagusia Liburutegi Zerbitzuarekin elkarlanean aritu da euskal autoritateak aberasteko proiektuan.



05/ **Kanpo-lankidetzak**

Beste hamar erakunderekin elkarlanean jarraitzen da Euskal Prentsa Digitalizatzeko Partzuergoan. Partzuergo hori 1991n hasi zen lanean, euskal prentsa digitalizatzeko, atzera begirako biltegiratze-kostuak saihestuz eta bertara sartzea erraztuz.

2024. urtean, Partzuergoaren jarduerak eguneroko prentsa digitalizatzen jarraitu du.

Liburutegi Nagusiak BILGUNEA Katalogo Kolektiboan parte hartzen du. Katalogo hori Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak sustatutako Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat erakundek, publikok zein pribatuk, osatzen dute.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2025